

**GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO
XEDAPEN OROKORRAK**

1

**DISPOSICIONES GENERALES DEL
TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA****GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA**

12/2016 FORU DEKRETUA, maiatzaren 24koa, zeinaren bidez aldatzen baita 2015eko ekainaren 2ko 15/2015 Foru Dekretua, Gipuzkoako Lurralde Historikoan mendekotasuna dutenentzako arreta zentroen erabiltzaileen ekarpen ekonomikoaren araubidea arautzekoa.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak, 2015eko ekainaren 2ko 15/2015 Foru dekretuaren bidez, Gipuzkoako Lurralde Historikoan mendekotasuna dutenentzako arreta zentroen erabiltzaileen ekarpen ekonomikoaren araubidea onartu zuen, eta, horrela, 2008ko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, Gizarte Zerbitzuenak, ezarritako printzipioak zehaztu ziren, eta arau batean bildu zen ordura arte sistematikoki jaso gabe zegoena.

12/2008 Legeak, IV. tituluan, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren finantzaketa arautzen du, eta finantzaketa iturrien artean erabiltzaileen ekarpena aipatzen du.

Erabiltzaileek egin beharreko ekarpen hori zehazteko, legeak dio erabiltzailearen baliabide ekonomikoak kontuan hartzeaz gain, ekarpen ekonomikoa irizpide hauen arabera zehaztu behar dela:

- Prestazioaren eta zerbitzuaren mota eta kostua.
- Erabiltzaileen baliatze mailak.

Gizarte Politikako Departamentuak antzeman du badaudela egoitza zentro batzuk, etxebizitza edo apartamentu modalitatekoak, mantenu zerbitzua eskaintzen ez dutenak, eta gai hori ez dago 2015eko ekainaren 2ko 15/2015 Foru Dekretuan jasota, beraz, foru dekretu hori egokitu egin behar da hasieran aurreikusi gabeko egoeretara.

Beste alde batetik, bere garaian departamentuak antzeman zuen bazirela egoitza zerbitzuen erabiltzaile batzuk inolako diru sarrerarik ez zutenak eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemari ere sar ez zitezkeenak, hain zuzen, zerbitzu horien erabiltzaile izateagatik.

Pertsona horiei gutxieneko diru sarrera batzuk eskaintze aldera, jasotzen duten zerbitzuan sartzen ez diren gastuei aurre egiteko, 2015eko apirilaren 21eko 11/2015 Foru Dekretua onartu zen, 2012ko ekainaren 19ko 31/2012 Foru Dekretua, Diru Sarrerak Bermatzeko Laguntzena, aldatzekoa. Horrela, pertsona horiei diru kopuru bat ematen zitzaien, 1986ko maiatzaren 26ko 129/1986 Dekretuak araututako Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Ongizateko Funtzaren pentsioaren parekoa.

Ondorioz, erabiltzaileak pertsona berak direnez gero, 2015eko ekainaren 2ko 15/2015 Foru Dekretuan txertatu behar da berme ekonomiko hori.

Horiek horrela, Gizarte Politikako Departamentuko foru diputatuak proposatuta, Diputatuen Kontseiluak gaurko bileran eztabaidatu eta onartu ondoren,

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

DECRETO FORAL 12/2016, de 24 de mayo, de modificación del Decreto Foral 15/2015, de 2 de junio, por el que se regula el régimen de la aportación económica de las personas usuarias de los centros de atención a la dependencia en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.

El Consejo de Gobierno Foral de la Diputación Foral de Gipuzkoa aprobó el Decreto Foral 15/2015, de 2 de junio, por el que se regula el régimen de la aportación económica de las personas usuarias de los centros de atención a la dependencia en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, concretando los principios establecidos en la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales, y unificando en una única norma la regulación que hasta el momento se había recogido de un modo no sistemático.

La Ley 12/2008 regula, en su Título IV, el modelo de financiación del Sistema Vasco de Servicios Sociales, previendo entre sus fuentes de financiación la participación económica de las personas usuarias.

Con el fin de determinar esa participación, la ley establece que, además de ponderar el nivel de recursos económicos de la persona usuaria, se determinará la aportación económica según los siguientes parámetros:

- El tipo y coste de la prestación y el servicio.
- Los diferentes grados de utilización posibles por parte de las personas usuarias.

El Departamento de Políticas Sociales ha detectado que existen centros residenciales en la modalidad de viviendas o apartamentos que no ofrecen el servicio de manutención, cuestión no contemplada en el Decreto Foral 15/2015, de 2 de junio, por lo que es necesario adecuar el decreto foral a las situaciones no previstas inicialmente.

Por otra parte, el citado departamento detectó en su momento la existencia de personas usuarias de los servicios residenciales que no cuentan con ningún tipo de ingreso y tampoco pueden acceder al Sistema de Garantía de Ingresos Vasco precisamente por ser usuarias de este tipo de servicios.

Con el fin de dotar a estas personas de unos ingresos mínimos para hacer frente a gastos no cubiertos por el servicio que vienen recibiendo, se aprobó el Decreto Foral 11/2015, de 21 de abril, de modificación del Decreto Foral 31/2012, de 19 de junio, por el que se establece la Ayuda para la Garantía de Ingresos. De esta manera se dotaba a dichas personas de una ayuda de cuantía equivalente a la pensión del Fondo de Bienestar Social de la Comunidad Autónoma del País Vasco regulada por el Decreto 129/1986, de 26 de mayo.

En consecuencia, por tratarse de las mismas personas usuarias, procede integrar esta garantía económica en el Decreto Foral 15/2015, de 2 de junio.

En su virtud, a propuesta de la diputada foral del Departamento de Políticas Sociales, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno Foral, en sesión del día de la fecha,

XEDATZEN DUT

DISPONGO

Artikulu bakarra. Aldatzea, 2015eko ekainaren 2ko 15/2015 Foru Dekretua, Gipuzkoako Lurralde Historikoan mendekotasuna dutenentzako arreta zentroen erabiltzaileen ekarpen ekonomikoaren araubidea arautzekoa.

2015eko ekainaren 2ko 15/2015 Foru Dekretua modu honetan aldatzen da:

Bat. 25. artikulua aldatzen da, 2. apartatua sartuta, eta ondoren aipatzen den moduan idatzita geratu da:

«25. artikulua. Ekarpene ekonomikoa zehaztea.

1. Honela zehaztuko da erabiltzaileen ekarpena:

Errenta indibidualaren %75/365 egun = erabiltzaileen ekarpena.

Azalpena:

Errenta indibiduala: 10. artikuluan xedatutakoa.

2. Nolanahi ere, mantenua ez denean egoitza zerbitzuan sartzen, errenta indibidualaren %65 hartu beharko da kontuan».

Bi. Ondorengo edukia duen bigarren xedapene gehigarria eransten da, eta orain artekoa lehenengo xedapene gehigarria izango da:

«Bigarren xedapene gehigarria. 2. artikuluan adierazitako egoitza zerbitzuen erabiltzaileek, alegia, inolako baliabide ekonomikorik ez dutenek eta erabiltzaile izateagatik 2010eko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuak araututako Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta jaso ezin dutenek aukera izango dute diru laguntza bat jasotzeko hileroko, eskaera egin ondoren, 1986ko maiatzaren 26ko 129/1986 Dekretuak araututako Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Ongizateko Funtsaren pen-tsioaren parekoa».

Hiru. Foru dekretu honen eranskinak, erabiltzaileei mantenu zerbitzurik eskaintzen ez dieten zerbitzuen berezitasuna jasotzen duenak, ordeztu du ekainaren 2ko 15/2015 Foru Dekretuaren I. eranskina, zerbitzu bakoitzari dagozkion erabilerak libreko kopuruak ezartzen dituena.

Xedapene indargabetzailea.

Indarrak gabe geratzen dira Diru-sarrerak Bermatzeko Laguntza ezartzen duen 2012ko ekainaren 19ko 31/2012 Foru Dekretuko bigarren xedapene gehigarria, eta foru dekretu honetan xedatutakoarekin bat ez datozen maila bereko edo beheragoko xedapene guztiak.

Amaierako xedapena.

Foru dekretu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Donostia, 2016ko maiatzaren 24a.

DIPUTATU NAGUSIA
Markel Olano Arrese.

GIZARTE POLITIKAKO
DEPARTAMENTUKO
FORU DIPUTATUA,
Maite Peña López.

(3965)

Artículo único. Modificación del Decreto Foral 15/2015, de 2 de junio, por el que se regula el régimen de la aportación económica de las personas usuarias de los centros de atención a la dependencia en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.

El Decreto Foral 15/2015, de 2 de junio, queda modificado como sigue:

Uno. Se modifica el artículo 25 con la incorporación del apartado 2, por lo que queda redactado de la siguiente forma:

«Artículo 25. Determinación de la aportación económica.

1. La aportación de la persona usuaria se determinará de la siguiente manera:

75% de la renta individual/365 días = aportación de la persona usuaria.

Siendo:

Renta individual: definida en el artículo 10.

2. No obstante lo anterior, cuando la persona usuaria no tenga cubierta la manutención dentro del servicio residencial, el porcentaje a computar de su renta individual será del 65%».

Dos. Se añade con el siguiente contenido, una segunda disposición adicional, pasando la actual a ser la primera:

«Disposición adicional segunda. Las personas usuarias de los servicios residenciales recogidos en el artículo 2, que no dispongan de ningún recurso económico y que, por su condición de usuarias, no puedan acceder a la Renta de Garantía de Ingresos regulada por el Decreto 147/2010, de 25 de mayo, podrán disponer, previa solicitud, de una ayuda económica mensual equivalente a la pensión del Fondo de Bienestar Social de la Comunidad Autónoma de País Vasco regulada por el Decreto 129/1986, de 26 de mayo».

Tres. El anexo I del Decreto Foral 15/2015, de 2 de junio, que establece las cuantías de libre disposición correspondientes a cada servicio se sustituye por el anexo que se incorpora al presente decreto foral que contempla la particularidad de los servicios que no incluyen la manutención de las personas usuarias.

Disposición derogatoria.

Quedan derogadas cuantas disposiciones de igual o inferior rango se opongan a lo dispuesto en el presente decreto foral y en particular, la disposición adicional segunda del Decreto Foral 31/2012, de 19 de junio, por el que se establece la Ayuda para la Garantía de Ingresos.

Disposición final.

El presente decreto foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y surtirá efectos a partir del 1 de enero de 2016.

San Sebastián, a 24 de mayo de 2016.

EL DIPUTADO GENERAL,
Markel Olano Arrese.

LA DIPUTADA FORAL
DEL DEPARTAMENTO DE
POLÍTICAS SOCIALES,
Maite Peña López.

(3965)

I. ERANSKINA
ERABILERA LIBREKO KOPURUAK
(Indarrean dagoen urteko Lanbide arteko Gutxieneko Soldataren portzentajea adierazita)

Zerbitzu mota	Erabilera librea
Mendekotasun egoeran dauden adinekoentzako egoitza zentroak	LGSren %23
Mendekotasun egoeran dauden adinekoentzako eguneko zentroak	LGSren %60
Desgaitasuna dutenentzako egoitza zentroak eta etxebizitzak (mantenuarekin)	LGSren %35
Desgaitasuna dutenentzako egoitza zentroak eta etxebizitzak (mantenurik gabe)	LGSren %50
Desgaitasuna dutenentzako eguneko zentroak	LGSren %60
Buruko gaixotasuna dutenentzako egoitza zentroak eta etxebizitzak (mantenuarekin)	LGSren %40
Buruko gaixotasuna dutenentzako egoitza zentroak eta etxebizitzak (mantenurik gabe)	LGSren %50
Errehabilitazio psikosozialeko eguneko zentroak	LGSren %60
Egoitza unitate soziosanitarioak	LGSren %23

ANEXO I
CUANTÍAS DE LIBRE DISPOSICIÓN
(Expresadas en porcentaje del Salario Mínimo Interprofesional vigente en cálculo anual)

Tipo de servicio	Libre disposición
Centros residenciales para personas mayores en situación de dependencia	23% del SMI
Centros de día para personas mayores en situación de dependencia	60% del SMI
Residencias y viviendas para personas con discapacidad (con servicio de manutención)	35% del SMI
Residencias y viviendas para personas con discapacidad (sin servicio de manutención)	50% del SMI
Centros de día para personas con discapacidad	60% del SMI
Residencias y viviendas para personas con enfermedad mental (con servicio de manutención)	40% del SMI
Residencias y viviendas para personas con enfermedad mental (sin servicio de manutención)	50% del SMI
Centros de día de rehabilitación psicosocial	60% del SMI
Unidades residenciales sociosanitarias	23% del SMI